

# Arraultze jaurtiketa lehiaketa Arrasateko Campusean

2009/05/13

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren zaindaria den San Pankrazio egunerako antolatzen diren ekintzen artean, arraultze jaurtiketak arrakasta handia izaten du. Aurten, maiatzaren 14an ospatuko da.

Dagoeneko, 165 ikasle lehiatuko dira 5 pertsonaz osatutako taldetan, guztira 33 talde. Izena emateko epea oraindik zabalik dago eta ikasle nahiz langileek hartu dezakete parte.

Gaur arte izena eman duten 33 taldeak industri diseinukoak dira, Graduko lehenengo maila eta Ingeniaritza Teknikoko 2. mailakoak.

15 metroko garaieratik botaten den elementua kartulina, zoka eta kolaz egina izango da. Arraultzeak bistan egon behar du eta gordina izan behar da, ezin delarik tratatu ez puskatzeko.

Elementua jaurti egin behar da, hau da, ezin da tirolinarik montatu, aske egin behar du hegan.

Hiru sari banatuko dira: Hegaldirik ederrenari, urrutien iristen denari eta estetika erakargarriena duenari.

Joan zen urtean, administrazioko taldeak sari berezi bat jaso zuen urteetan zehar aurkeztu izan direlako.

Honetaz gain, goizean zehar 10. Eraikuntzan prototipoen kartel erakusketa egongo da.

